DURANGALDEA

ESKUALDEKO LANDA GARAPEN PROGRAMA 2015-2020



Urkiola LGE | Hazi | Eusko Jaurlaritza

AURKIBIDEA

1. **SARRERA:**
   - 1.1. Zer da LGP
   - 1.2. Zertarako prestatu dugu LGP
   - 1.3. Zergatik eguneratzen da orain?
   - 1.4. LGParen esparrua (landa-eremuak)
2. **TESTUINGURUA:**
   - 2.1. Aurreko LGParen ebaluazioa: ondorioak
   - 2.2. EAEko landa-garapenaren ildoak
3. **METODOLOGÍA**
   - 3.1 LGPak prestatzeko metodologia
     - 3.1.1 Prozesua antolatu eta abian jartzea
     - 3.1.2 Egoeraren diagnostikoa
     - 3.1.3 Estrategia zehaztea. ESKUALDEKO ESPARRU ESTRATEGIKOA
     - 3.1.4 Lankidetza-ekimenak
     - 3.1.5 Prozesuaren mapa
   - 3.2 Garatzeko metodologia:
     - 3.2.1. Ardurak: lantaldeak
4. **ABIAPUNTUKO DIAGNOSTIKOA:**
   - 4.1. AMIA eguneratua.
   - 4.2. Balio diferentziala.
   - 4.3. Garapenerako oztopoak
5. **ESPARRU ESTRATEGIKOA**
   - 5.1. Estrategikoaren mapa
   - 5.2. Arlokako fitxak
6. **ERANSKINAK**
   - 6.1. Landatasun mailak
   - 6.2. Urteko Kudeaketa Planaren eredua
   - 6.3. Dokumentua egiten parte hartu duten eragile-sarea
   - 6.4. Eskualdeko plan eta programak
   - 6.5. Eskualde gaineko plan eta programak
   - 6.6. Adierazleen definizioak

1. SARRERA.

Landa Garapenerako Programa (LGP) berria eguneratu eta zehazteko **Durangaldean** burutu den hausnarketa- eta prestaketa-prozesuaren azken emaitzak biltzen ditu agiri honek. **Urkiola Landa Garapenerako Elkarteak (LGE)** zuzendu du prozesua, **Haziren** eta **Eusko Jaurlaritzaren** babesarekin eta laguntzarekin.

1.1. Zer da LGP.

Plangintza estrategikorako eta kudeaketa iraunkorrerako tresna bat da, **Euskadiko landa-ingurunearen garapenerako 10/1998 Legean** (lurraldeko funtzioaniztasuna eta oreka zaintzeko sortua) jatorria duena. Bertan jasotzen denez "… Bereziki Euskal Herriko Landa ingurunea garatzera orientatzen diren politikek landa ingurunearen garapenerako programen forma hartuko dute

Eskualdeko landa-ingurunearen antolamendua eta kudeaketa iraunkorra egiteko tresna da LGP agiria. Asmo hori burutzeko, ezinbestekoa da tartean diren eragile guztien inplikazioa eta konpromisoa, egun dauden baliabideak egoki erabiltzea, eta eskualdearen garapen integralik onena bermatzera bideratutako estrategia eta ekimen zehatzak lantzea.

1.2. Zertarako prestatu dugu LGP***.***

Eskualde bakoitzeko landa-inguruneen garapenean lagundu nahi duten erakunde, administrazio eta pertsona guztiek (era guztietako baliabideekin: ekonomikoak, giza baliabideak, instalazioak...):

- Argi izan dezaten zein diren landa-inguruneetako beharrei eta kezkei erantzuteko eskualde bakoitzean identifikatutako apustu nagusiak.
- Dinamizaziorako tresna komun bat izan dezaten, programan jasotako jarduerak abian jartzea bizkortzeko eta bermatzeko.
- Lanerako oinarrizko dokumentua izan dezaten, landa-garapenaren alde lan egiten duten erakunde eta administrazio orotan.

Honako hau lortu nahi dugu LGParen bidez:

- Pertsonen eta erakundeen inplikazioa eta konpromisoa euren eskualdearen garapenarekin.
- Eskualdean eta eskualdez gaindi, balioa sortzeko prozesuak arintzea.
- Kooperazio-ekimenak sortu, bultzatu eta garatzeko ohitura sortzea.
- Landa-garapen aktiboa eta dinamikoa ekarriko duten eremuak eskaintzea.
- Eskualdeen landa-garapenerako estrategiak egituratzea, landa-garapenerako elkarteen (LGE) bidez.
- Landa-eremuan aritzen diren administrazioen arteko koordinazioa hobetzea, batzuen eta besteen politikak zehaztu eta burutzerakoan.
- Landa Garapenerako Euskal Sarea berreskuratu eta indartzea, EAE osoan landa-garapenerako estrategiak garatu eta sortzeko.

1.3. Zergatik eguneratzen da orain

Landa-garapenerako programak eguneratzeko beharra dago, arrazoi hauek direla-eta:

a) **Aurreko LGPak 2007an prestatu ziren,** eta ordutik hona aldaketa handiak izan dira landa-eremuetako biztanleriari eta sozioekonomiari lotutako dinamiketan. Hala, arazo eta gabezietako batzuk gainditua daude gaur egun; beste batzuk konpondu ahal izateko apustu serioa eta egituratua behar da oraindik ere, eta inguruneari lotutako garapen-aukera eta mehatxu berriak ere sortu dira. Horren adibidea da, esaterako, gaur egun bizi dugun krisia, zeharo baldintzatu baitu garapen sozioekonomiko orokorra eta, bereziki, landa-eremuarena. Horregatik guztiagatik, premiazkoa da gaur egungo egoerari buruzko hausnarketa egitea, gero landa-garapenerako gidalerroak zehazten jarraitzeko.

b) Prozesu hori bat dator denboran landa-garapenari lotutako dekretu berriak dakartzan **Europako Finantza Esparruko 2015-2020 aldirako Landa Garapen Iraunkorrerako Programarekin**. Apropos bilatu dugun aldiberekotasun horren bidez, koherentzia handiagoa eman nahi diegu landa-garapenerako plangintza eta tresnei.

d) Izan ere, **LGPak aldi berean eguneratu dira EAEko 18 landa-eskualdeetan**. Horri esker, burutu beharreko prozesuak era koordinatuagoan, integratuagoan eta koherenteagoan kudeatu ahal izango dira, eta lankidetza-estrategiak identifikatu eta txertatzeko aukera egongo da. Gai erkideei batera helduz, eraginkortasun handiagoa lortuko dugu; irismen, kalitate eta efizientzia handiagoko irtenbideak ahalbidetuko ditugu; eta inplikatutako sailen arteko ardurakidetasuna bultzatuko dugu. Izan ere, horrela jokatuz, sail bakoitzak gure landa-eremuetarako dituen programak eta politikak egungo errealitatera eta etorkizuneko ikuspegira egokitu ahal izango dira.

e) Eguneratze-prozesu honen emaitzak, LGP 2015-2020 berrian jasotako ildo estrategikoekin batera, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren erreferentziak izango dira, landa-inguruneetako laguntza-politikak zuzentzeko garaian.

1.4. LGParen esparrua (landa-eremuak)

Landa-izaera handiena duten eremuak bereiztearren, eta 2015-2020 aldirako Euskadiko Landa Garapenerako Programan (FEADER) zehaztutako irizpideak oinarri hartuta, EAEn hiru eremu bereizi dira: zailtasun bereziko zonaldea, landa-eremua eta hiri-eremua.

Ondoko mapan ikusten dira eskualdeak, bereizita.

Eskualdeko LGP honen jarduera-esparrua landa-eremuak dira nagusiki. Halere, kontuan hartu behar da hiru eremuen artean sinergiak eta loturak daudela.


Durangaldea
Morga
Zamudio
Lezama
Larrabetzu
Etxebarri
Aldana
Mendata
Munitibar-Arbatzegi Gerrikaitz
Aulesti
Muxika
Ziortza-Bolibar
Etxebarria
Boroa
Autzagana
Basauri
Galdakao
Markina-Xemein
Elgoibar
Etxano
Amorebieta-Etxano
Gerea
Altepe
Amorebieta
Oromin
Sarria
Berano Txikia
Zaratamo
Dudea
Mallabia
Goita
Arandoño
Lemoa
Osma
Berano Nagusia
Eibar
Bedia
Garai
Euba
Iurreta
Berriz
Sallobente
Ermua
Mallabia
Ermua
Areitio
Bernagoitia
Otxango
Zaldibar
Igorre
Zaldibar
Eitzaga
Durango
Gazaga
Murgoitio
Arantzazu
Izurtza
Abadiño-Zelaieta
Leiz-Miñota
Mendraka
Elgeta
Izurtza
Gaztañeta
Zeberio
Lekeriketa
Berriozabaleta-Aramiño
Berrio-Aldape
Muntsaratz
Dima
Mañaria
Abatamonasterio
Elorrio
Mañaria
Abadiño
Gazeta
Artea
Mendiola
San Agustin
Marzana
Elorrio
San Juan
Bergara
Santiago
Iguria
Atxondo
Areatza
Olazabal
Arrazola
Urkiola
Arrasate/Mondragón
Aramaio
Oñati
Otxandio
ZONA RURAL DESFAVORECIDA / LEHENTASUNEZKO LANDA EREMUA
RESTO ZONA RURAL / GAINERAKO LANDA EREMUA
ZONA URBANA / HIRI EREMUA
PARZONERIA / PARTZUERGOA


Durangaldea
Muxika
Etxano
Ziortza-Bolibar
Gerea
Oromiño
San Marko
Sarria
Amorebieta
Dudea
Artatza
Mallabia
Goita
Goierri
Garai (San Migel)
Osma
Garai
Amorebieta-Etxano
Euba
Berriz
Andikoa
Fauste
Bakixa
Iurreta
Santa Maña
Gaztañatza
Goiuria
Sallobente
Momoitio
Mallabia
Mañariku
Amatza
Areitio
Arriandi
Arandia
Iurreta
Garaizar
Bernagoitia
Mallabiena Aita San Migel
Iturburu
Berriz-Olakueta
Okango
Zaldibar
Orozketa
Santa Apolonia
Gerediaga
Eitua
San Andres
Zaldibar
Gazaga
Durango
Durango
Traña-Matiena
Murgoitio
Bitaño
Izurtza
Abadiño
Gaztelua
Leiz-Miñota
Abadiño-Zelaieta
Izurtza
Ortuzar
Dima
Elorriō
Lekeriketa
Mendraka
Gaztañeta
Berriozabaleta-Aramiño
Mendiola
Muntsaratz
Berrio-Aldape
Apatamonasterio
Elorrio
Atxondo
San Agustin
ZONA RURAL DESFAVORECIDA / LEHENTASUNEZKO LANDA EREMUA
RESTO ZONA RURAL / GAINERAKO LANDA EREMUA
ZONA URBANA / HIRI EREMUA
PARZONERIA / PARTZUERGOA

2. TESTUINGURUA

2.1. Aurreko LGParen ebaluazioa:ondorioak

Aurreko Lea Artibai eskualdeko LGPak 6 ardatz nagusi finkatu ziren. Lehenengoa "**Landa Garapen Elkarteri**" dagokiona zen. Honen baitan bi helburu nagusi ezarri ziren, LGE erreferentzialtasuna handitu eta LGE helburu berrietara moldatu. Hainbat izan dira helburu hauek lortzeko burutu diren ekintzak: Garapen agentziaz batera turismoko mahaian parte hartu du, DA Kofradia eratu da (bertoko produktuak kontsumitzeko elkartea) eragile pribatu ezberdinak bateratuz, herri ezberdinetako administrazioetan "e-administrazioa" zabaltzeko hitzarmena sinatu da Biscaytik fundazioarekin, "Webquest" material didaktikoa sortu da eta Bilbon merkatu iraunkor bat egotea lortu da. Azken ekintza hau lortzeko prozesua luzea izan den arren, kontutan izanda baserritarrentzat garrantzitsua dela parada horretan egotea, etenik gabeko esfortzu bat egin da Bilbon merkatu iraunkor bat gauzatzea lortu den arte.

Bigarren ardatzak "**Lehen sektorearen dibertsifikazioa**" jorratu zuen.

Arlo honetan eskualdeko nekazaritza eta abeltzaintza jarduera mantentzeko eta dibertsifikatzeko hainbat ekintza gauzatu dira eskualdean. Sektoreko agenteen arazoei irtenbideak bilatzeko bideak jorratu dira nolabait, hondakinen arazoari irtenbide eman zaio adibidez.

Hauen produktuak merkaturatzeko kanal ezberdinak landu eta arautu dira baita ere: Durangoko merkatuen arautegia, Iurretako merkatu berria, Eroskiko parkineko azoka, Gustum kooperazio proiektua…

Epealdi honetan kanal berriak ere landu dira, OIZ egin plataformaren bitartez. Bertoko produktuak on-line erosteko aukerak zabalduz. Hurrengo epealdian salmenta era honekiko apustua egiten bada aliantzak bilatu beharko dira funtzionamendu egoki bat izan dezan.

Eskualdeko baso jarduera mantentzea eta dibertsifikatze helburuaren baitan, baso amankomunak kudeatzeko elkartearen sorrera aipatu behar dugu. Epealdi honetan baso hauen kudeaketa egoki baterako hitzarmenak sinatu dira.

Dibertsifikazio aldera, sektorean jarduera berriak sartzeko asmoarekin, etengabeko ikerketa eta formakuntza jasotzea beharrezko dela ikusten da.

Epealdi honetan bi eskualdek (Lea-Artibai eta Durangaldea) egindako hausnarketa positiboa azpimarratu behar dugu "Itaurrean proiektua". Etorkizuneko ardatzak definitzeko prozesu bat eraman da aurrera. Hausnarketa honetatik, hurrengo epealdirako ideia orokor batzuk atera dira:

- Produkzio eta kontsumo ekologikoa sustatzeko nahia
- Kontsumitzaileak eta produktoreen arteko konpromiso harremanak.
- Eskualde biak dituzten azpiegituren katalogoa osatu.
- Produkzio mailan gabeziak ditugu, eskaria handiagoa da eskaintza baino.

Epealdi honetan, lehengo sektoreak lanpostu galera nabarmena sufritu du, baina joera hau krisia baino lehenagoko tendentzia da. Bideragarritasun ekonomiko arazoak direla medio, gizaldietako ogibideak izan direnak, desagerraraztera eraman gaitu. Gaur egun 1.156 (2009 errolda) esplotazio ditugu Durangaldean, Bizkaiko esplotazioen %16a. Gutxi dira sektore honetan lan egiten dutenak.

Durangaldea eskualde oso industriala da, baina krisiaren eraginez enpresa asko izan dira itxi dituztenak. Langabeziaren bilakaera[1] oso negatiboa izan da epealdi honetan, %61,75 langabetu gehiago daudelarik eskualdean. Baina landa eremuan lehen sektorean jarduten dutenen kopuruak igoera txiki-txiki bat izan du %0,88. Datu honen arrazoiak ezberdinak izan daitezke, baina langabezian gelditzeak, hau da industrian lan egiteko aukerak murriztean, beste irtenbide batzuk aztertzera bultzatu ditu biztanleak. Epealdi honetan sektorean jarduteko ekintzaileen joera bat dagoela nabaritu da.

Aurreko LGPaen hirugarren ardatzak "**Turismoa"** jorratzen zuen.

Turismo ardatza lantzeko hainbat izan dira eskualdean aurrera eraman diren ekintzak: azpiegitura ezberdinen sortzean lagundu da, eskaintza osatu da…

Alojamendu eta plaza kopuruak %7,69 igo da. Adibidez, Garaiko alojamendu gabezia gainditu da bi alojamendu berri ezarriz.

Durangaldean eskualdeko turismoa lantzen duen entitaterik ez dago. Epealdi honetan turismo agentea zein izan daitekeen adosten saiatu izan dira inplikatutako eragile guztiak, adostasun batetara heldu direlarik, baina adostasun hau gauzatzeko pauso ezberdinak eman behar dira. Beraz, momentuz, eskualdean ez dago Durangaldeako turismoa lantzen duen eragile komunik.

Bestalde, eskualdeko dinamizazio plana landuta dago baina gauzatu barik eta eguneratzearren beharrean dago.

Turismoari dagokionez beraz, hurrengo epealdirako, turismoa agentea gauzatzeaz gain , turismo arduratsu bateranzko ibilbidea jorratzen hastea lan ildo bat izan daiteke. Turistikoki eskualdeak zona erakargarriak ditu, potentzialiatea dauka.

Laugarren lan ardatza "**Bizi kalitatea eta zerbitzuak**" dagokiona izan zen.

Epealdi honetan landa eremuko bizi kalitatea eta zerbitzuak hobetu eta ugaritu dira baina oraindik lanean jarraitu behar da existitzen diren beharrizanak asetzeko.

Epealdia hasi zenetik, landa eremuko populazioa gehitu egin da %9,31an. Hazkunde nabarmena jasan dituzten udalerrien artean ondokoak ditugu: Garai %11,50eko igoeraz, Izurtza %13,59rekin eta Mañaria %11,28rekin.

Bestalde, Durangaldeako biztanleria zahartuta dagoela esan dezakegu, izan ere biztanleriaren %11,97ak 65 urte baino gehiago ditu. Joera hau izango dela kontutan izanda, populazioaren segmentu honi egokitutako estrategiak planifikatu beharko dira sortuko diren beharrizanei erantzuteko.

Bosgarren ardatzak **Natur baliabideen kudeaketa eramangarria** zuen helburu.

Durangaldea bi ingurune ezberdinen batuketa bat dela esan dezakegu. Alde batetik, industrigunea daukagu eta bestetik, eskualdeko harri bitxi lez kontsideratu dezakegun Urkiola parkea daukagu. Urkiola parkea babestutako gunea da eta 5.768ha azalera du. Durangaldeako industri ehuna oso zabala eta dinamikoa da, honek ingurumenean kalte handiak eragin izan ditu. Ardatz honetan egindako jarduerak ugariak izan ez diren arren, lurralde kudeaketa gauzatzerakoan prebentzio politikak sustatzea derrigorrezkotzat jotzen dugu balio aunitzeko guneak mantentzeko, baina era

[1] *Landa-eremuetako eta hiri-eremuetako datuak zehaztu eta bereizteko, datu demografikoei dagokienez, G1 eta G8 bitarteko landa-izaera duten entitateei buruzko datuen batukaria hartu da aintzat; eta gainerako datuei dagokienez, berriz, G1 eta G8 bitarteko landa-izaera duten udalerri guztietako datuen batukaria (2007-2014 aldiko landa-izaeraren graduen sailkapena kontuan hartuta).*

berean gune hauetan aktibitate berriak sortu nahi direnean aurkitzen diren trabak ekiditeko bideak landu beharko dira konpetentzia duten administrazioekin.

LGPen azken ardatza "**Bizikidetza, nortasuna eta landa eremuaren balioespena"** zen.

Beharrezkoa ikusten da eskualdeko herritarrek landa eremuak betetzen dituen funtzio aniztasunetaz ohartaraztea. Bideak bilatu behar dira sentsibilizazio edo informazio honen hedapena egiteko.

Eskualdetasuna lantzeko eta Durangaldeako nortasunari eusteko ekintzak ere eraman izan dira aurrera.

2.2. EAEko landa-garapenaren ildoak.

Eskualdeetako 2015-2020 aldirako LGPak prestatzeko prozesua ahaleginak biltzearen premiatik abiarazi da hasiera-hasieratik. Horrela jokatuz, EAE osoan lehentasunezkoak eta interes erkidekoak diren esparruak identifikatzen dira eta, ondoren, esparru orokor horiek eskualde bakoitzera egokitzeko aukera dago, bakoitzaren berezitasunak eta aukerak nabarmenduta.

Ildo horretan, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Ingurumen Politikako Sailburuordetzak honako gidalerro estrategiko hauek zehaztu ditu EAEn landa-garapena bideratzeko esparru orokor gisa:

- Sustapen ekonomikoa
- Gizarte-dinamikak
- Biztanleentzako zerbitzuak
- Berrikuntzako eta lankidetzako dinamikak sortzea

Gidalerro horiek Sailburuordetzaren helburu estrategikoen arabera prestatu dira, eskualdeetako LGPak Sailburuordetzak bultzatutako beste plan eta programa batzuekin bateratzeko eta lerratzeko asmoz.

Helburu horien artean, esparru estrategiko honen oinarrian daudenak azpimarratu nahi ditugu. Hau da:

1. Ekoizpen-sektorearen lehiakortasuna eta nekazaritzako elikagaien katean duen eginkizuna indartzea, balio erantsia areagotzeko helburuz. Eta horretarako:
    a. Enpresen arteko lankidetza indartuko da landa-eremuko sare eta elkarteen bidez.
    b. Tokiko produktuei eta Euskadi markari lotutako nekazaritzako elikagaien industria babestuko da, jatorri-izendapenaren bidez, kalitatearen berme izan dadin.
    c. Merkataritza-kanal laburrak eta hurbileko ekimenak sustatuko dira.
2. Enpresa-jarduera berriak bultzatzea, enplegua sortzeko, biztanleria tokian bertan finkatzeko, eta nekazaritza- eta arrantza-eremuak suspertzeko, tradizioan eta egiten jakitean oinarrituta.

3. Landa-eremuaren lehiakortasunean eragiten duten egiturazko defizitak zuzentzea eta herritarrentzako zerbitzuak hobetzea. Eta, horretarako:

    a. Belaunaldi-ordezkapena bultzatuko da.

    b. Landa-eremuko eta itsasertzeko azpiegiturak hobetuko dira.

    c. Sektoreko eta landa-eremuko gobernantza hobetuko da.

4. Garatu beharreko politiketan genero-ikuspegia txertatzea.

Helburu eta gidalerro estrategiko horien bidez, eskualde bakoitzeko inputak hobeto aprobetxatu nahi ditugu, landa-garapenerako programak ahalik eta eraginkorrenak izateko. Izan ere, horrela eskuratu ahal izango ditugu LGP bakoitzean planteatutako etorkizuneko ikuspegira hurbilaraziko gaituzten emaitzak.

3. METODOLOGIA.

3.1. LGPak prestatzeko metodologia.

LGPak prestatzeko prozesua era koordinatuan burutu dugu 18 eskualdeetan, eta lan bateratua erabili dugu metodologiatzat. Horretarako, kontuan hartu ditugu aurreko LGPak diseinatzeko esperientzia eta egindako lan-saioetan bildutako ekarpenak, betiere gaur egungo beharrizanetara egokitutako metodologia eskuratze aldera.

Eskualdeetako LGPak prestatzeko hiru fase bereizi ditugu:

- Prozesua antolatu eta abian jartzea.
- Egoeraren diagnostikoa.
- Estrategia zehaztea.

3.1.1 –Prozesua antolatu eta abian jartzea

Fase horretan oinarriak finkatzen dira, gero prozesua garatu ahal izateko.

- *Abiapuntua. Abiapuntuko oinarrizko informazioa.*

Eskualdeetako Landa Garapenerako Programa berriak prestatzean ez gara hutsetik abiatzen, dagoeneko hainbat elementu hartu baitira aintzat:

- **Aurreko Landa Garapenerako Programen (2007-2013) ebaluazioa.** Ebaluazio horiek aurreko aldiko estrategien garapen-mailaren berri ematen digute; horrela, argi ikus dezakegu arrakasten eta porroten zergatia, baita aurreko urteen aldean egoera desberdina azaleratzen duten adierazle sozioekonomiko globalen bilakaera ere.

- **EAErako esparru estrategikoa.** Oro har kontuan hartu beharreko gidalerro estrategikoak adierazten dizkigu. Gidalerro horiek Eusko Jaurlaritzak maila orokorrean zehaztutako lehentasunetara lerratzen dira. Horietako asko dagoeneko agertzen dira Jaurlaritzak bultzatutako plan, programa eta ekimenetan.

- **Eskualdean dauden beste plan eta programa batzuk**, LGP berriek zehazten dituzten helburuak lortzeko sinergia handiagoak sustatzeko asmoz.

- *Partaidetza-eredua. Eragile-sarea.*

LGPak prestatu eta ondoren abiarazteko, ezinbestekoa da eskualdeko eragileen parte-hartzea eta inplikazioa. Eskualde bakoitzean izandako partaidetza hainbat faktoreren menpe egon da, hala nola abiapuntuko egoera (eskualdeko eragileek duten partaidetza-kultura) eta beste partaidetza-prozesu batzuetan berrikitan izan duten esperientzia.

Eskualdeko benetako premiak identifikatzera bideratutako partaidetza-prozesua bermatzeko eta ondoren programa garatzeko sinergiak sortuko direla ziurtatzeko, eragile-sarea zehaztu eta honako gaitasun bat edo batzuk dituzten pertsonak identifikatu dira:

- Eskualdeko landa-eremua ezagutzen dutenak.
- Prozesuan ideia berriak eta balio erantsia ekartzeko gaitasuna dutenak. Etorkizuneko ikuspegi eraikitzaile eta proaktiboa dutenak.

- Eskualdean landa-eremu bizia izatea baldintza dezaketen esparruetan, gaietan eta proiektuan eragiteko gaitasuna dutenak.

- Prozesu osoan, diseinutik hasi eta LGP txertatu arte, laguntzeko eta inplikatzeko gaitasuna eta aukera dutenak.

Partaidetza-prozesu horretan eskualdeko eragile interesgarri guztiak bildu nahi izan ditugu. Ildo horretan, hiru partaidetza-maila bereizi ditugu, ondorengo irudian ikusiko dugun bezala.

- **Talde teknikoa:** LGP prestatu eta txertatzeko prozesua koordinatzearen ardura du. HAZIko, eskualdeko LGEko eta Eusko Jaurlaritzako Landaren eta Itsasertzaren Garapen Zuzendaritzako teknikariek osatzen dute.

- **LGEaren Zuzendaritza Batzordea:** hasierako proposamen estrategikoak egin eta, ondoren, gainerako eragile-sarearekin kontrastatu eta aberastea da haren eginkizuna, kontuan hartuta eskualdean duen ordezkaritza eta erreferentzialtasuna eta zonaldeko errealitatea ondo ezagutzen duela.

- **Eskualdeko eragileen sarea:** hasierako proposamen estrategikoak kontrastatu eta aberasten ditu eta laneko esparru estrategiko bakoitza zehazten laguntzen du, gaur egun dauden proiektuak identifikatuz eta helburuak lortzen lagunduko duten ekimen berriak proposatuz. Eskualdeko landa-eremuari lotutako pertsonek eta erakundeek osatzen dute sare hori, eta haien gaitasuna eta jarrera dela eta, Programa aberasten laguntzen dute.

Hainbat bide erabili dira agiria prestatzeko behar den informazioa biltzeko:

❖ Aurkezpen informatiboak eta **lantegi dinamikoak** egin ditugu LGEaren Zuzendaritza Batzordearekin eta eskualdeko beste eragile batzuekin.

❖ Eskualdeko eragileren baten iritzia biltzeko edota landa-garapenari lotutako planei eta ekimenei buruzko informazio handiagoa jasotzeko beharrezkoa zela pentsatu dugunean, **elkarrizketak** egin ditugu.

❖ Norbanakoen ekarpenak bildu ditugu (posta elektronikoz, posta arruntez, webgunearen bidez…), eta programa prestatzean kontuan hartu.

Durangaldeako LGPak idazteko bi tailer burutu dira, lehenengoa Zuzendaritza Batzordearekin, eta bigarren eragile sarearekin. Bigarren tailer honetan 29 pertsonak parte hartu dute, teknikari, udaletxeetako ordezkari, enpresa arduradun eta hainbat elkarteen ordezkari. Ekarpenak e-mail bitartez bidali dituzte eta jaso egin dira.

- *Prozesuaren berri ematea*

LGP prestatzeko prozesuaren eta ondorioen berri emateko eskualdeko eragileei korreo elektronikoaren bidez egin izan dira hainbat komunikazio, parte hartzea sustatzeko batetik eta ekarpenak jasotzeko bestetik.

LGAko Juntako kideekin ere hainbat bilera antolatu egin dira, beraien iritzi eta balioztatzea jasotzeko.

LGAko web orrian ere edonork dokumentua kontsultatzeko eta ekarpenak bideratzeko aukera izango du.

3.1.2 –Egoeraren diagnostikoa

LGPan jasotako egoeraren diagnostikoak honako elementu hauek bildu ditu:

- **AMIA azterketa:** eskualdeko ahulezien, mehatxuen, indarren eta aukeren azterketa.

  Horretarako, lehenengo eta behin aurreko aldiko AMIA (2007koa) berrikusi dugu, eta orduan bildutako faktore bakoitzak indarrean jarraitzen duen, zer lehentasun duen... aztertu dugu. Horri esker, gaur egungo errealitateari hobeto egokitzen zaion AMIA lortu dugu.

- **Balio diferentziala:** eskualdea gainerakoetatik bereizten duten funtsezko faktore positiboak.

  Eskualdearen balio diferentzial berezia zehazteko eta, horrela, **Durangaldea** EAEko gainerako eskualdeetatik desberdina bihurtzen duten berezitasunak identifikatzeko, honako galdera honi erantzun diogu:

  - Zerk bereizten gaitu zentzu positiboan gainerako eskualdeetatik? Zertan dira desberdinak gure landa-eremuak?

- **Garapenerako oztopoak:** eskualdeko landa-eremuen garapena zailtzen duten funtsezko faktore negatiboak.

  Eskualdearen garapenerako oztopo bereziak zehazteko honako galdera honi erantzun diogu:

  - Zein dira gure eskualdeko landa-eremuak garatzeko oztopo berezi nagusiak?

3.1.3 –Estrategia zehaztea → ESKUALDEKO ESPARRU ESTRATEGIKOA

Esparru horrek biltzen du eskualdeko landa-eremuen epe ertainerako (2015-2020) estrategia. Hau da, norantz joan nahi dugun, zer bide jorratu behar dugun eta nola egin behar dugun.

Horretarako, honako elementu hauek zehaztu ditugu:

- **Etorkizuneko ikuspegia:** irudikatzen dugun egoera bat da; eskualdeko landa-eremuaren etorkizunaz nahi dugunari lotutako ikuspuntu berezia.

Hori zehazteko, 2007-2013 aldirako LGPan zehaztutako ikuspegia hartu dugu aintzat, baina 2020 helmugari begira. Horrek esan nahi du aurreko aldian baino etorkizun laburragorantz begiratzen dugula eta, hartara, zehaztasun, espezifikotasun eta errealismo handiagoa behar dugula. Ikuspegi horrek eskualdeko landa-eremuaren garapenean inplikatutako eragileen lanaren norabidea bideratzen du.

- **Arlo estrategikoak:** lan-arlo handi horietara bideratuko ditugu programazio-aldiko ahaleginak, etorkizuneko ikuspegirantz ahalik eta gehien hurbiltzeko helburuz.

  Arlo horiek zehazteko, ikuspegian jasotako elementuetatik abiatu gara eta honako galdera honi erantzun diogu: Zer lan-arlo planteatu behar ditut ikuspegirantz jotzeko eta zehaztutako helburuak lortzen laguntzeko?

  Arlo estrategiko bakoitzean lantaldea, jarduera-ildoak eta helburuak zehaztu ditugu.

- **Helburuak:** finkatutako aldian eskualdeko landa-eremua hobetzeko asmoaren adierazpide zehatz eta kuantifikatua dira. Helburuek argiak, laburrak eta neurgarriak (adierazleei lotuak) izan behar dute, eta batez ere egingarriak izan behar dute.

  Bi helburu mota bereizi ditugu, irismena kontuan hartuta:

  - Helburu orokorrak, ikuspegiari lotutakoak.
  - Helburu bereziak, arlo estrategiko bakoitzari lotutakoak.

  Horiek zehazteko, honako galdera hauei erantzun diegu: Zer lortu nahi dut? Zenbat lortu nahi dut? Eta nola neurtu ahal dut?

- **Zeharkako ardatzak:** Arlo estrategikoetako bakoitza gauzatzeko prozesuan kontuan hartu beharreko ikuspegiak dira, esparru estrategiko orokorrak berez-berezkoak dituelako.

  1.1. Genero-ikuspegia.

  1.2. Iraunkortasuna.

  1.3. Lankidetza

  1.4. Komunikazio plana

3.1.4 –Lankidetza-ekimenak

Eskualdeetako LGP guztiak prestatu ondoren, interes erkidegoko alorrak (guzti-guztiek dituztenak, edota baten batzuek dituztenak) identifikatuko dira, eskualdeen arteko lankidetza-proiektuak garatu ahal izateko.

Lankidetzako proiektu hauek identifikatzeko jarraituko den metodologia, LGE guztietan egingo diren dinamika partehartzaileen bitartez egingo da. Emaitza, Agiriari gehituko zaion Eranskin bezala azalduko da.

3.1.5 –Prozesuaren mapa.

3.2. Egikaritzeko metodologia.

Eskualdeko LGPak aplikatzen egin ditugun urteetan ikasi dugun gauza garrantzitsuena da LGPak egiteko metodologiaz gain egoki egikaritzeko jarraibideak ere zehaztu behar direla.

Helburua da programa hauek dokumentu biziak izatea, eskualdeko agenteek jardueretan parte hartzea eta ekitaldi honetan egikaritze-maila handitzea.

Fase honetan programak NORK eta NOLA gauzatzen dituen oso garrantzitsua da. Hori dela eta, funtsezkoa da honako hauek zehaztea:

- Zer agentek parte hartzen duten.
- Agenteak nola taldekatu beharko liratekeen.
- Talde bakoitzak zer funtzio beteko lituzkeen.
- Taldeak nola antolatzen diren.

Horretarako, programa egikaritzeko oinarri metodologiko komun bat ezarri dugu. Dena den, metodologia hori eskualdeek haien premien eta errealitatearen arabera moldatu ahal izango dute.

Programa egikaritzeko koadroan eskualdeko eta eskualdez gaindiko lan-foroak bildu ditugu. Eskualdez gaindikoek elkarlanean aritzea eta lanerako jarraibide eta estrategia bateratuak zehaztea erraztuko dute.

Esan bezala, eskualdeek, haien errealitatearen arabera, lan-eskema horri estuago edo lasaiago hel diezaiekete. Horregatik, taulan, gutxienez bete beharreko konpromisoez gain, talde osagarriak sortu nahi izanez gero kontuan har daitezkeen iradokizunak bildu ditugu.

LGPak gauzatzeko Urteko Kudeaketa Planak zehaztuko dira. Dokumentu horietan LGPetan aldi osorako jarritako helburuak betetzeko urtero egin beharreko jarduerak jasoko dira. Alde horretatik, ereduzko fitxa bat egin dugu (6.2 eranskina), jarduera bakoitzaren inguruko informazioa zehaztea errazteko (arduradunak, partaideak, erronka nagusiak, aurrekontua...).

4. ABIAPUNTUKO DIAGNOSTIKOA.

4.1. AMIA eguneratua

Eskualdeko landa-eremuen gaur egungo egoera aztertzeko prestatu da AMIA matrize hau. Bertan agertzen dira egun **garapen-prozesuan parte hartzen dute barne-faktoreak** (ahuleziak eta indarrak) nahiz **kanpo-faktoreak** (mehatxuak eta aukerak).

Honako hauek dira faktore horien definizioak:

AHULEZIAK: Eskualdearen garapen egokia oztopatzen duten berezko elementuak eta alderdiak dira.

MEHATXUAK: Eskualdetik kanpoko egoera negatiboak dira, eskualdean eragina izan dezaketenak. Horregatik, eragin negatiboa badute, beharrezkoa izan daiteke horiek saihesteko estrategia egokia diseinatzea.

INDARRAK: Eskualdea gainerako eskualdeetatik bereizten duten barneko elementu positiboak eta eskualdearen barne-ezaugarriak eta izaera positiboa nabarmentzen dute.

AUKERAK: Ingurunean sortutako faktore positiboak dira, identifikatu ondoren, aprobetxatzeko aukera ematen dutenak.

AHULEZIAK	MEHATXUAK
AH1- Nekazaritzarako eta abeltzaintzarako lurra falta da baina jabegoa ez dago lur hoiek uzteko prest. AH2- Lur bakuen informazio falta. AH3- Landa eremuko garraio publikoa ez da egokia landa eremuko berezitasun eta premietarako. AH4- Landa eremuetako giza baliabideen premiak ez daude behar bezala identifikatuta (eguneko zentroak, aldi baterako harrera zentroak, babespeko etxebizitzak, e.a.). AH5- Hiriekin alderatuta, landa eremuetan Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen eskaria txikia da, biztanleek informazio gutxi dutelako eta kanpoan laguntza eskatzea baztertu egiten dutelako. AH6- Garai Izurtzan eta Mañarian ez dute ez Lehen Hezkuntzarik. AH7- Landa eremuetako biztanleak zahartzen ari dira eta, beraz, zerbitzu eta baliabide gehiago eskatzen dituzte. AH8- Azpiegiturak: landa biztanleak sakabanatuta bizi dira eta eremu batzuetan saneamendu eta hornidura arazoak ez ezik argindar falta ere badute. AH9- Landa eremuan etxebizitza erostea zaila da. AH10- Eskualdeko udalek ez dute elkarrekin lan egiten proiektuak zehazteko eta baliabideak partekatzeko. AH11- Udalerri txikienetan (Garai eta Izurtza) kultur etxeak badaude baina gune hauek dinamizatzea falta da. AH12- Mallabiak eta Ermuak Gipuzkoari begiratzen diote arlo askotan eta horrek eskualdearen garapena zaildu dezake. AH13- Errenta erabilgarria (familiena eta banakoena) batezbestekoa baino txikiagoa da eta horrek barne inbertsioa mugatu egiten du. AH14- Turismoaren alorrean, ez dago produktuak merkaturatzeko sistema bateraturik, ezta marketin planik ere. Ezta komuneko egitura edo planik. Eskualdean ez dago turismo proiekturik. AH15- Bide gorri falta. AH16- Bertoko produktuak kontsumitzeko kontzientzia ahula nahiz eta tendentzia handitzen doan. AH17- Durangoko hiltegia desagertu da. AH18- Eskualdeko herriak 3 OCAtan banatuta daude, Markina, Durango eta Igorre. AH19- Banda Zabalaren hedadura txarra.	M1- Hiriko biztanleek eta erakundeek landa eremua ez dute aintzat hartzen: sektorearen alderdi ekonomikoari eta epe motzerako izaerari bakarrik begiratzen diote, funtzio ugari dituela ahaztuta. M2- Lehen sektorean belaunaldi berriek txanda ez hartzen jarraitzea, beste sektore batzuetan ikuspegi ekonomiko eta profesionala hobea delako. M3- Azkar hazten diren espezieak landatzeko lurren erabilera aldaketa ez dago erregulatuta. M4- Ingurunean eragin handia izango dute AHTak eta beste azpiegitura proiektu handi batzuk. M5- Lurren inguruan presio eta espekulazio handia dago, batik bat bailararen ondoan. M6- Turismo negozioarekiko menpekotasun handia dago. M7- Osasun, hezkuntza eta kultura zerbitzuak herri nagusietan biltzeko joera dago. M8- Oraingo familien gizarte, ekonomia eta lan egoerak ez du errazten familiako eta laneko bizitza uztartzen. M9- Parke naturalean aplikatuko den legedi berria (Natura 2000) murritzaileagoa izango da ekintza batzuk egiteko. M10- Ondasun publikoak mantentzeko zailtasunak.

INDARGUNEAK	AUKERAK:
I1- Eskualdean tokiko nekazaritza elikagaiak balioesten dituen merkatu potentzial garrantzitsua dago. I2- Jarduerak pixkanaka dibertsifikatzen ari dira (ahuntzak, txerriak, txakolina, sagardoa, gazta, loreak, landare apaingarriak, e.a.) I3- Lehen sektoreari laguntzeko egitura ugari daude (elkarteak…) eta elkartegintzarako joera handia da. I4- Oinarrizko kultur ekipamenduak daude ia udalerri guztietan (udalerri guztietan dago kultur etxea edo, bestela liburutegia), baita hedabideak ere (euskaraz eta gaztelaniaz; Mallabian Ermuko hedabideak dauzkate), Durangaldearako bereziki sortuak. I5- Kalitatezko turismo eskaintza dago (azken urteotan ekipamenduak asko hobetu dira, kualitatiboki zein kuantitatiboki) eta etorkizuneko garapenerako oinarri egokiak jarri dituzte. Eskaintza pribatua. I6- Gizarte zerbitzuetan senideek eta bizilagunek lagundu egiten dute, baita parrokiek ere adindunen jardueren berri ematen. I7- Eskualdean ur baliabide garrantzitsuak daude (lurrazpiko akuiferoak). I8- Kokapena pribilegiatua da. Durangaldea hiru lurralde historikoen elkargunea da. I9- Kultur elkarte sare garrantzitsua dago. I10- Paisaia eta kultur ondare aberatsak daude (Urkiolako Parkea…) eta natur eta paisaia baliabideetarako sarbide egoki eta kontrolatuak. I11- Dimentsioa egokia da (masa kritikoa) etorkizunean proiektuak aurrera eramateko. I12- Udalak komuneko lurrak dauzkate hiltegi edo elikagaiak eraldatzeko zonalde bat martxan jartzeko I13- Oiz egin plataforma sortuta dago I14- Landako erabilera anitzeko azpiegitura I15- Elkarrekin erabiltzen diren lurrak (lur pribatu+lur publikoak)	AU1- Landa eremuarekin lotura gehien duten administrazioak kontzienteak dira landa eremuak betetzen duen funtzio ugariez (ekonomikoa, ekologikoa, soziologikoa, kulturala, e.a.) AU2- Basoen gestio eramangarriak ziurtagiria jaso dezake, produktua desberdintzeko sistema gisa. AU3- Gero eta joera handiagoa dago natur ingurunea aisiarako eta denbora librerako jarduerak gauzatzeko erabiltzeko. AU4- Landa turismoa sendotzen ari da pixkanaka. AU5- Ikt informazioa komunikazio teknologikoa TICsTeknologia berriekin hainbat alor hobetu daitezke landa eremuan (tele-zaintza, tele-alarma, bideokonferentziak, energia berriztagarriak, garraio sistema arinak, gizarte eta osasun zerbitzuen koordinazioa, e.a.). AU6- Eskualdeko ekonomia eta industria jarduera indartsua aprobetxatu daiteke, lehen sektorean errentak hobetzeko eta dibertsifikatzeko (baserriko eta industriako lana uztartuta). AU7- Biomasaren erabilera gero eta hedatuagoa da AU8-Auzolana berreskuratu bertoko produktuari lotuta. AU9- Herri txikietan hausnarketa estrategikoak egitea.

4.2. Balio diferentziala

Eskualdeko landa-eremuaren funtsezko faktore positiboak dira. Indartuz gero, gainerako eskualdeetatik bereizteko balio dezakete.

- **ESKUALDE OSO INDUSTRIALIZATUA**: Industriak indar handia dauka geure eskualdean. Poligono industrial asko dagoz, metalgintza eta automozioari lotutako enpresak nabarmenak izanik. Landa eremuko biztanleriaren zati handi batek, berton bizi arren, haranean kokatuta dagozan enpresetan egiten dabe lan.

- **KOMUNIKAZIO ETA GARRAIOBIDE SARE GARATUA**: AP-8a erdi-erditik pasatzen da, eskualdea erdibituz. Era berean, AHT-a, euskotren zerbitzua, Durango-Beasain bidea… komunikazio arina eta ona edukitzea ahalbideratzen dau, inguruko eskualdeekaz.

- **ERKIDEGOAREN MAPA ERDIAN KOKATUTA**: Geografia aldetik ondo kokatutako eskualdea da, Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabatik, erdigunean egonda. Kokapen estrategiko hau, lagungarria izan da Durangaldearentzat bere garapenerako.

- **URKIOLAKO NATUR PARKEA**: Durangaldearako oso gune aberatsa eta babestua da. Elikagai parke bat eraikitzeko lurra dago, paisaia, flora, fauna, santutegia… aukera ezinhobeak emonaz, eskualde honen garapenerako. Gainera, aipatu beharra dago, euskaldunontzat, Urkiola erreferente dala (espiritualtasuna…)

- **KULTUR EREAKUNDE GEREDIAGA ALKARTEA**: Eskualde honetan elkarteak eratzeko edo sortzeko ohitura handia dago batez be, kirol eta kultura mailan. Horren adibide garbia Gerediaga alkartea da, besteak beste; Durangoko azokaren antolatzailea. Beste adibide batzuk, Euskal Herriko artisauen alkartea (Arbaso) da, Abadiñon kokatuta dagoena.

- **ONDAREA**: Ondare historiko, artistiko… guztiz aberatsa duen eskualdea da, geurea; Elorrio eta Durangoko alde zaharrak, eleizak, baseleizak, baserriak, nekropoliak… Ondare kulturalean be, mitologia, dantzak, erromeriak… garrantzi handia daukie.

- **MITOLOGIA**: Mitologiaren inguruan, hainbat kondaira eta ipuin ezagutzen dira, ahoz-aho mantentzen diranak, batez be, baserri mailan. Inguru honi lotuta pertsonai famatu asko dagoz, Anbotoko Mari, Basajaun, gentilak, lamiak…

- **ABELTZAIN ALKARTEAK**: Abeltzaintza oraindik, presentzia handia du, gehienak hortik bizi ez diran arren. Nabarmenak dira ardi aziendak, batez be gaztaiaren ekoizpenera bideratuta dagozanak. Horrez gain, okela behiak, egon, badagoz, azpigorri ahuntzak… kasu askotan inguruko abeltzainak batu izan dira, alkarteak eratuz, batez be, herri basoen kudeaketa euren esku egon daiten. Era honetan, Potzuzarreta, Mugarra-Aramotz, AGA alkarteak topatu daikeguz.

- **EKOIZLE BARRIAK AGROEKOLOGIAN**: Nekazaritza mailan, ekintzaile barri gehienak, agroekologia ardatz harturik, abian jartzen dabez euren ustiapenak, beti be, produktu ahalik eta osasuntsuenak eta garbienak ekoizten saiatuz.

- **SAN BLAS AZOKA**: Zezeilaren 3an ospatzen da, Abadiñon. Neguan ospatzen den azokarik garrantzitsuenetariko bat da Euskal Herri mailan. Lehen sektoreko profesionalen topagunea bilakatu da, jende piloa batuz. Idi proben munduan be, fama handikoa da.

- **<u>HEZKUNTZA ESKAINTZA ANITZA ETA ZABALA</u>**: Egia esan, eskaintza oparoa da, haurreskolatik batxilergora arte, eta hortik aurrera be, formakuntza zenbait arlotan eskeintzen daben zentroak dagoz. Ikastetxe bai publiko bai pribatuak dagoz, ikastolak… batzuk puntakoak, Estatu mailan eta haratago be, Lauaxeta ikastola, esate baterako.

- **<u>GASTRONOMIA ALDETIK BALIABIDEAK</u>**: Ostalaritzak badu bere lekua. Kasu batzutan, erreferenteak bilakatu dira bai Euskal Herri mailan, bai mundu mailan. Mitxelin izarrak daukiezan jatetxeak ere badagoz, Etxebarri eta Boroa, adibidez. Eta pintxo mailan, lehiaketa ospetsuak ikusi leikez, Zornotzako Jan Alai… eta horren irabazleak be.

- **<u>KULTUR ESKAINTZA POTENTEA, OPAROA ETA ZABALA</u>**: Liburu azoka, musika kontzertuak, antzerki emanaldiak… Horietako gehienenetan, euskara da, berba tresna, beti be, bizkaieraz.

4.3. Garapenerako oztopoak.

Eskualdeko landa-eremuaren funtsezko faktore negatiboak dira, haren bilakaera oztopatu edo negatiboki baldintzatu dezaketenak.

- **<u>KRISI EKONOMIKOA</u>:** Leku guztietan bezala, geure eskualdean be, krisiak eragin handia izan du. Gainera oso eskualde industrializatua izanik, eta krisiak enpresak gogor zapalduz, langabezia %5etik %15era heltzea lortu dau. Eraikuntzaren sektoreak porrot egin duenez, berton lan egiten zuen jende askok langabezian geratu da.

- **<u>GARRAIOBIDE AZPIEGITUREK ORBANAK ERAGIN DABEZ PAISAIAN</u>:** Garraiobide (azpiegitura) berriek, inguruko mendietan eta paisaian kalteak sortu dabez. Mendiak zulatzeak, basoak botatzeak… itxuran aldaketa asko ekarri dauz. Honek, baserri asko botarazi dauz, ustiapenak zarratu edo lekuz aldatu… eta lurraren falta begi bistan egon bada, orain premia hau areagotu egin da.

- **<u>ESKUALDE MODUAN LAN EGITEKO OHITURA FALTA</u>:** Nahiz eta aurrerapausoren bat emon dan, lankidetza, eskasa da. Horrez gain, alkarte ezbardinen barruen, lan egiteko konpromezua, nabarmen egin dau behera. Gainera, Mallabia, Amorebieta-Etxano edo Otxandioren kasuetan, zalantzak egon dira ez dalako argi geratu ze eskualdeetan kokatzen diren.

- **<u>BANAKETA ADMINISTRATIBOA</u>:** Gai guztietan, amankomunazgoan, nekazaritzan… konpetentziak lar mailakatuta dagoz, leku eta erakunde ezbardinetan egonda, eta honek herritarrengan zoramena eragiten deutsie.

- **<u>TRINTXERAK, AURREIRITZIAK:</u>** Durangaldeako eragileen artean gainditu gabeko trintxerak eta aurreiritziak dagoz, lankidetza oztopatzen dabena. Ekintzak edo proiektuak noren burutazioak diren arabera, aurrera edo atzera botaten dabez, sarritan egitasmoa jakin aurretik. Zentsu honetan, politikak eragin handia deuko.

- **<u>PRODUKTUAK OSTALARITZARA BIDERATZEKO SARE BATEN FALTA</u>:** Ekoizleen arazko nagusietariko bat, komertzializazioa da. Esfortzuak ekoizpenean jartzen dabe, baina ez komertzializazioan. Beraz, sarritan saltzeko momentuan zailtasun handiak deukiez. Batzuen urtenbidea, kontsumo talde txikiak, maioristei zuzentzea ekoizpena… izen da.

Honen harian, interesgarria izango liteke, ostalaritzak bertoko produktuak kontsumitzea. Baina gaur egun, bide hori jorratu barik dago

- **<u>HERRIEN ARTEAN ELKARGUNE GUTXI:</u>** Udalerriak alkarrekaz aritzeko ohitura gutxi.

5. ESPARRU ESTRATEGIKOA

5.1. Mapa estrategikoa

2020rako ikuspegia: etorkizunean eskualdeko landa-eremua zer izatea nahi dugun islatzen duen agertokia da. Kasu zehatz horretan, 2020ra begira jarri dugu helmuga.

> ***Eragile publiko eta pribatuen lankidetza bermatuz garapen jasangarrian oinarritutako aktibitate ekonomiko dibertsifikatua duen eskualdea. Oinarrizko azpiegitura egokiekin, eta aukera berdintasuna eta kohesio sozial eta territoriala duen eskualdea.***

Ikuspegiari lotutako helburu orokorrak: ikuspegiaren elementu nagusiei lotutako helburu handiak dira.

Helburuak neurtzeko, gaur egungo egoera eta berauen lorpen maila ulertzen lagunduko diguten hainbat adierazle identifikatu dira. Adierazle gehienen datuak, herrialdea bere osotasunean kontuan izanda jaso dira, hau dela eta, hiritasun maila altua duten herrialdeetan, baina aldi berean landa eremuko guneak dituztenean, adierazle hauen balioek ez dute landa eremuko egoera ongi isladatzen.

Helburuak neurtzeko eta berauen lorpen maila modu objektibo batean aztertzeko, bi adierazle mota ditugu:

- Emaitzen adierazleak: lortu diren berehalako eta zuzeneko ondorioak neurtzen ditu.
- Eraginen adierazleak: Ez dute soilik zuzeneko onuradunen gaineko ondorioak neurtzen, haratago doaz eta gizartea bere osotasunean kontuan hartzen dute. Bere lorpen maila ez dago emandako ekintzaren eraginkortasunaren baitan soilik ,kanpoko beste eragile batzuen eragina jasan bait dezakete eta ondorioz, ekintzen eraginkortasuna ezin da bere osotasunean programaren arduradunei gain egotzi.

Ondorengo taulan; helburu, adierazle eta gaur egungo egoeraren arteko erlazioa isladatzen da eta lan aldi honetarako espero diren balioen defizinioa, garatzeko metodologian aipatzen den lan taldeari dagokio

Helburu orokorrak	Adierazleak	Egungo balioa
• Lehen sektorean oinarritutako aktibitate ekonomikoa garatu. Ustiapenen errentagarritasuna handitzen lagunduz.	○ Nekazal ustiategi kopurua (PAC dirulaguntza erregistroa). ○ Nekazaritza Balio erantsi gordina.	1.678 8.622
• Bertoko baliabideen barne kudeaketa bultzatu.	○ Martxan jarritako ekintza kopurua.	0*
• Turismo sektoreak eskualdeko ekonomian daukan pisu ekonomikoa gehitu, eskualdean turismoa sustatuz.	○ Landa eremuko ostatuetako plaza kopurua. ○ Aktibitate adar bakoitzeko langabezi kopurua (komertzio eta ostalaritzan)	769 *1.144*
• Enpresen lehiakortasunean eraginez, jarduera berriak eta	○ Lagundutako ekintzaile kopurua.	0

jasangarriak sustatu. Ekintzailetza sustatu eta enplegua sortu.	○ Lagundutako enpresa kopurua.	0
• Bizi kalitatea bermatu.	○ Lagundutako proiektu kopurua.	0

* *Gaur egungo balio 0 agertzen den kasuetan, LGPak martxan jartzen denetik aurrera zenbatuko direlako da.*

<u>Zeharkako ardatzak</u>: ardatz hauek, euren izaeragatik arlo estrategiko zehatz batetik hedatu eta modu horizontal batean, eskualdeko landa garapen programetan landuko dira.

1. Genero-ikuspegia.

Sexuaren arabera banaka daitezkeen adierazle guztietan emakume-kopurua eta gizon-kopurua bereiz adierazi behar dira.

Gainera, emakumeen ordezkagarritasunaren bilakaera eta tokiko erakundeen konpromisoa neurtuko dira, adierazle hauen bidez:

ADIERAZLEAK	GAUR EGUNGO BALIOA					
	KONTZENTRAZIO-INDIZEA		FEMINIZAZIO-INDIZEA	TASA		GENERO-ARRAILA
	EMAKUMEAK	GIZONAK		EMAKUMEAK	GIZONAK	
• Udalbatzen antolamendua sexuaren arabera.	*0,06*	*0,06*	*0,65*	*39,22%*	*60,68%*	*-21,57%*
• LGEko Zuzendaritza Batzordearen antolamendua sexuaren arabera.	*0,02*	*0,04*	*0,17*	*14,29%*	*85,71%*	*-71,43%*

ADIERAZLEAK	GAUR EGUNGO BALIOA	OBSERVACIONES
• Eskualdean berdintasun-planak dituzten udalerrien portzentajea.	61,5%	13 udalerritik 8k Berdintasun Plana daukate .

2. Iraunkortasuna.

Tokiko erakundeen konpromisoa neurtuko da, adierazle hauen bitartez:

HELBURUAK	ADIERAZLEAK	GAUR EGUNGO BALIOA [2]
